

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elurra kentzeko 27 makina mugiaraziko dituzte erdialdean eta Pirinio aldean elurteak izango direla iragarri ondoren

Biharko, ostegunerako, erdialdean eta Pirinio aldean 600 metrotik gora elurra egitea espero da

Miércoles, 30 de marzo de 2016

Elurra kentzeko 27 makina mugiaraziko dituzte Nafarroako Gobernuak eta AP-15 Nafarroako Autobideko sozietate emakidadunak ostegun honetan, Foru Komunitateko bideetan; izan ere, Estatuko Meteorologia Agentziak elurteak izango direla [iragarri](#) du.

Erdialdean 4 zentimetro rainoko elur-geruzak espero dira, ipar-ekialdean bereziki, eta 10 zentimetro rainokoak Pirinio aldean; bi kasuetan, 600-700 metrotik gora, eta fenomeno hori izateko % 40-70eko aurreikuspenarekin.

10 makina Agoizko barrutian ariko dira lanean (Ibañeta, Erro, Mezkiritz, Las Coronas, Belaguako mendateak...); 7 Irurtzongo lotunean (A-15, A-1 Aralar iparraldea eta Lizarraga); 4 Mugairin (N-121-A, Belate, Ezkurra, Artesiagako mendateak...); 2 Lizarra inguan (Urbasa-Ameskoak eta La Población); beste 2 Tafallan (Lerga eta Carrascal); eta 2 AP-15ean.